

TARTALO. Mito eta Arteen Nazioarteko X. Kongresua
2026ko azaroaren 17tik 20ra, Vitoria-Gasteiz
UPV/EHUko Letren Fakultatea (hibridoa)

Komunikazio deialdia

Mitoak, zentzu zabalean ulertuta, denbora historikoak markatzen ez duen baina errealitatea alderdi unibertsal eta sakonetan islatzeko eta giza izaeraren funtsezko egiak gorpuzteko gaitasuna duen narrazioa izendatzen du. Nolabait, transzendentea, gizakiarengan eta kosmosarengan esentziala dena, modu sinplifikatuan argitara ateratzeko modu bat da. Horregatik, historiaren hastapenetatik, gizateriak mitoak sortu ditu, kasu askotan funtsean gizakiaren izaeraren metafora direnak, bere beldur, ikara edo larritasunena, bere desira edo irrika sakonena. Horrela, itxuraz kontaketa sinple eta are inuzente bihurturik, mitoak denboran zehar mantendu eta testuinguru eta zirkunstantzia berrietara egokitu dira, haien indarra eta esanahia mantenduz.

Premisa horren pean, *TARTALO. Mito eta Arteen Nazioarteko X. Kongresua* deitzen dugu mitoaren inguruan edozein adierazpen artistikotan, garai historiko edo espazio-esparrutan eta edozein marko teorikotatik lan egiten duten ikertzaileak biltzeko asmoz.

Ildo horretan, mitoa honako ikuspunturen batetik lantzen duten proposamenak bidaltzera bultzatzen zaituztegu:

- **Mittoa, poetikak eta berridazketak**
Mitopoetika, mitoen berrikusketa eta garapena, folklorea eta elkarrizketa transtestualak, baita mitoa genero, tradizio eta mugimendu estetikoei dagokienez ere.
- **Mittoa, bitartekoak eta praktika artistikoak**
Mittoa arteetan, soinuan, ikus-entzunezkoetan eta sorkuntza modu berrietan, ikuspuntu estetiko, formal eta transmediatik.
- **Mittoa, itzulpengintza eta kultura-zirkulazioa**
Mittoa itzulpengintzan, kultura arteko transferentzian, eta teknologia berriek bere egokitzeapenean eta esanahiaren berrikuntzan duten papera.
- **Mittoa, identitatea, gorputza eta gizartea**
Mittoa eta identitatearen eraikuntza, mitoa eta genero eta interseksionalitate ikasketak, estereotipoak, boterea, dibertsitatea, desgaitasunak, irisgarritasuna eta mitoaren erabilera sozialak.
- **Mittoa, fantasiakoa eta tradizio estetikoak**
Fantasiakoa mitoarekin elkarrizketan dagoen kategoria estetiko eta kultural moduan, bere presentzia arte bisual eta literarioetan, bere erlazioa genero eta

errepresentazioarekin, baita zientzia-fikzioaren eta gotikoaren tradizioetan eta *Inklings*-en ondarean duen artikulazioa ere.

Proposamenen bidalketa

Komunitate akademikoa gonbidatzen dugu bere proposamenak *TARTALO. Mito eta Arteen Nazioarteko X. Kongresu*-ra bidaltzera. Proposamenek honako hauek jaso beharko dituzte: autorearen datuak (izen-abizenak, filiazio instituzionala, helbide elektronikoa), laburpen bat (100 hitz gehienez) eta ohar biografiko bat (100 hitz gehienez) eta online edo aurrez aurre parte hartzea aurreikusten den zehaztu.

Laburpenak proposamenaren helburuak, erabilitako metodologia eta ikuspuntuak, emaitza eta/edo ondorioak, eta gehienez 5 hitz-gako zehaztu beharko ditu.

Hori guztia MS Word-ekin bateragarriak diren fitxategietan bidali beharko da, Times New Roman 12 puntuko letra erabiliz, espazio bikoitzean eta testu justifikatuarekin (goiko eta beheko marjinak: 2.54 cm; alboetakoak: 3.18 cm).

Proposamenak **2026eko maiatzaren 8a** baino lehen bidali behar dira [TARTALO](#) plataformaren bitartez Batzorde Zientifikoak ebaluatu ditzan. Proposamenaren inguruko erabakia **2026eko ekainaren 5a** baino lehen helaraziko zaie autoreei. Behin onespena jasota, izen-ematea egin ahal izango da, zeina dagokion tasa ordaindu ondoren berretsiko den.

Laburpenak *The Fantastic in the Arts* seriearen laugarren liburukian argitaratuko dira (ISBNa du).

Parte-hartze moduak

TARTALO. Mito eta Arteen Nazioarteko X. Kongresua **online eta aurrez aurre** egingo da. Hizlari bakoitzak 15 minutu izango ditu bere lanak aurkezteko eta gaztelera eta ingelesa izango dira onartutako hizkuntzak.

Aurrez aurreko egoitza Euskal Herriko Unibertsitatearen Letren Fakultatean egongo da (Unibertsitatearen Pasealekua, 5, 01006 Vitoria-Gasteiz, Araba). Bestalde, modalitate birtualeko aurkezpenak Microsoft Teams plataformaren bidez egingo dira. Parte-hartze birtualerako proposamenak onartzen zaizkien pertsonak Kongresua egin baino egun batzuk lehenago jasoko dute sartzeko esteka eta beraien aurkezpena (.pptx, .ppt edo .pdf formatuan) aldeztu aurretik bidali beharko dute gerta litezkeen gorabehera teknikoei aurrea hartzeko.



TR42872

TARTALO Fidelizazio Sariak

TARTALO Fidelizazio Sariak *TARTALO. Mito eta Arteen Nazioarteko X. Kongresua*-ren izen-emate tasa ordaintzea dute helburu, ikertzaile ezberdinek foro akademiko honetan izan duten etengabeko parte-hartzea aitortu eta sustatzeko.

Urte natural bakoitzeko bi laguntza emango dira.

Eskatzaileak

Honako baldintza hauek betetzen dituzten eskatzaileek jaso ahal izango dituzte laguntza horiek:

- Doktoregoko ikasleak izatea edo doktore-titulua izatea.
- Gutxienez, TARTALO kongresuaren aurreko bi ediziotan parte hartu izana (ez nahitaez elkarren segidakoak) eta indarreko edizioan komunikazio bat aurkeztea.
- Aurreko deialdian laguntza honen onuradun ez izatea.

Argitalpena

Sarbide-eredu ireki batekin lan egiten duen aldizkari batean lanen aukeraketa bat argitaratzea aurreikusten da (*Green Open Access*). Sistema honek argitaratutako edukietarako sarbide librea eta berehalakoa bermatzen du, eta, aldi berean, egiletza-eskubideak aitortzen eta errespetatzen ditu. Halaber, ANECAk ezarritako irizpideekin bat etorriz, *Green Open Access* ereduak ikerketaren zirkulazio zabala errazten du *preprint* eta *postprint* bertsioak gordailu instituzional edo tematikoetan gordetzeko aukeraren bitartez, argitalpenen ikusgarritasuna, eragin akademikoa eta trazabilitatea handitzen lagunduz.

Artikuluak [TARTALO](#) plataformaren bitartez bidali beharko dira, horretarako prestatutako atalaren barruan, non egileek estilo-orria eta jarraitu beharreko jarraibide formalak ere aurkituko dituzten. Beren lanak argitaratzeko interesa duten egileek behin betiko bertsioa **2027ko urtarrilaren 11** baino lehen bidali beharko dute. Bidalitako artikulu guztiei pare itsuen bidezko kanpo-ebaluazioa egingo zaie, eta prozesu hori gainditzen dutenak bakarrik argitaratuko dira. Lanek 5.000 eta 7.000 hitz arteko luzera izan beharko dute (oharrak eta erreferentzia bibliografikoak barne) eta MLA sistemara egokitu beharko dira aipamen eta erreferentzia bibliografikoetarako.

Izen-emateak

Biltzarrean parte hartzen duten guztiek izen-emate kuota ordaindu beharko dute. Komunikazioak egile bat baino gehiago badu, guztiek eman beharko dute izena.

Kontsultatu izena emateko epeak eta aukerak hemen:

<https://www.tartalogasteiz.com/eu/kongresua>

Antolaketa, babesleak eta laguntzaileak

TARTALO. Mito eta Arteen Nazioarteko X. Kongresua TR42872 Transferentzia Taldeak eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Letren Fakultateko irakasle eta ikertzaileek **antolatzen dute**.

HEVENDAY irabazi asmorik gabeko kultur elkarteak eta UPV/EHUko Ingeles eta Aleman Filologia, Itzulpengintza eta Interpretazio Sailak; Ikasketa Klasikoen Sailak; Filologia eta Historia Sailak eta Literatura Konparatua eta Literatura Ikasketak Masterrak **babesten dute** ekitaldia.

Arabako Campuseko Errektoreordetzak (UPV/EHU), Letren Fakultateak (UPV/EHU), UPV/EHUko Literatura Konparatua eta Literatura Ikasketak Masterrak, REWEST eta IdeoLit: Literatura dokumentu historiko gisa ikerketa-taldeak (UPV/EHU), Irlandar Ikasketen Euskal Zentroak (Eusk-Cara) eta IAFA, Sociedad Española de Estudios Clásicos Sección País Vasco, International Association for the Fantastic in the Arts-ek **laguntzen dute**.

Baieztatutako osoko hizlariak

J.J. Benítez (Idazlea, Espainia)

Jim Casey (ICFA Konferentziaren zuzendaria, AEB)

Anke Eissmann (Marrazkigile eta diseinatzaile grafikoa, Alemania)

Juan F. Elices (Universidad de Alcalá de Henares, Espainia)

David Higgins (Embry-Riddle Aeronautical University, Estatu Batuak)

Toti Martínez de Lezea (Idazlea, Espainia)

Marisol Morales Ladrón (Universidad de Alcalá de Henares, Espainia)

Janina Ramírez (University of Oxford, Erresuma Batua)

Héctor Uroz (Universidad de Murcia, Espainia)

Antolakuntza Batzordea

Jon Alkorta Martiartu (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Adrián Arana Armesto (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Naiara Berganzo Besga (Universidad de La Rioja)

María del Carmen Encinas Reguero (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Olga Fernández Vicente (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Alba Jimeno Ruiz de Larrinaga (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Alicia Martínez Martín (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Alejandro Martínez Sobrino (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Jonatan Pérez Mostazo (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Tamara Rojo Castro (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Ane Belén Ruiz Lejarcegui (Euskal Herriko Unibertsitatea)



TR42872

Batzorde Zientifikoa

Mercedes Aguirre Castro (Universidad Complutense de Madrid)
Asier Altuna García de Salazar (Universidad de Deusto)
José Javier Azanza López (Universidad de Navarra)
Antonio Andrés Ballesteros González (Universidad Nacional de Educación a Distancia)
Richard Buxton (University of Bristol)
P.J. Matthews (University College Dublin)
Juan Ignacio Oliva Cruz (Universidad de La Laguna)
David Río Raigadas (Euskal Herriko Unibertsitatea)
María Inmaculada Rodríguez Moya (Universitat Jaume I)
África Vidal Claramonte (Universidad de Salamanca)

Aurreko edizioak

[*Mito eta Arteen Nazioarteko I. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko II. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko III. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko IV. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko V. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko VI. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko VII. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko VIII. Kongresua*](#)
[*Mito eta Arteen Nazioarteko IX. Kongresua \(ekoizpenean\)*](#)

Sare sozialak

Youtube: [**@tartalogasteiz**](#)
TikTok: [**@tartalogasteiz**](#)
Instagram: [**@tartalogasteiz**](#)
X: [**@TartaloGasteiz**](#)